

# AMAREN ERIOTZ OSTEAN LISIEUX-ERA ALDATZEN

Geure amaren gaixotasunari buruzko zeaztasun guztiok bizi-bizi dagoz oindiño nire biotzean; gogoratzen ditut batez be lur gaiñean igaro zitun azken asteak. Zelina ta ni erbesteratutako gaixo bi legez gintzazan. Goizero Leriche andrea billa etorten jakun eta bere etxean emoten gendun eguna.

Egun batean, ez gendun euki astirik urten aurretik geure otoitzak egiteko eta, bidean ibilliz, Zelinak ixil-ixil esan eustan: "Esango ete dautsagu ez doguzala egin geure otoitzak?" "0, bail", erantzun neutson; orduan berak adeitsu Leriche andreari esan eutson, eta onek: "Ederto, alabatxoak, oraintxe egin zeinkiez" eta gu gela aundi batera eroanik, joan zan... Zelinak begitu eustan, eta guk geure artean: "0, ezta ama langoa, arek beti laguntzen ginduzan otoitzak egiten! "

Neskatoakaz olgetan genbiltzala be, geure amatxo maitearen pentsamentua lagun genduan beti. Zelinak bein muxika eder bat artu eban, urreratu ta esan eustan: "Ez dogu jango, amatxori emongo dausat". Baiña, ai!, amatxo gaixoa gaixoegi egoan lurreko frutak jateko, etzan asetuko zeruan ezik Jainkoaren aintzaz eta Jesusegaz edan Arek bere azkenengo aparrian aitatu eban ardao ezkututik, eta bere Aitaren erreiñuan gugaz bananduko ebala agindu euskuna (Mt. 26, 29).

Azken Igurtziko zeremoni erdiragarria be josita geratu da nire ariman; ikusten dot oindiño Zelinaren ondoan artzen neban lekua; bostok erres tadan gengozan adinka, eta aitaxo be antxe negarrez...

Egun aretan edo amaren eriotz biaramonean, besoetan artu nindun berak, esanaz: "Zatoz zeure amatxo gaixoari azken-mosua emoten". Eta nik, ezer be esan barik, neure ezpanak urreratu neba zan neure ama laztanaren bekokira...

Ez dot uste negar asko egin nebanik. Ez neutsozan Mori neukazan sentimentu biziak adierazten... Begitu ta entzun, ixillik... Iñok ez eukan astirik nitaz arduratzeko, orixegaitik gorde nai neukazan gauzak ikusi nebazan; une betean, i1 kutxaren ateari aurrez-aurre aurkitu nintzan..., begira geratu nintzakion luzaro, iñoiz ez neban antzekorik ikusi; alan be, ulertzen neban... Ni oso txikia bai nintzan, eta ama be txikia, goi-bez, burua jaso bear neban guztia ikusteko eta aundia eta tristea iruditu jatan...

Amabost urte geroago, beste ateute baten aurrean aurkitu nintzan, Genobeba Amarenaren aurrean; nire ama zanaren neurrik bardiñekoa zan eta oindiño neure ume egunetan nengoala uste izan neban... Neure gomutaki guztiak moltzotu ziran, egi-egiaz Teresatxo berbera zan begira egoana, baiña azita egoan, eta ilkutxa txikia iruditzen jakon, eta orain ez eukan, ikusteko, burua jaso bearrik; ez

eban jasoten oso alaia begitanduten jakon zerua ikuskatzeko baiño, proba guztiak amaituak bai ziran eta bere arimearen negua igaroa zan betiko.

Gure amatxo maitearen gorpuzlan ilkorrak Eleizeak bedeinkatu ebazan egunean, beste ama bat emon nai izan eustan Jainkoak lurrean, eta bera neuk aukeratzea nai izan eban askatasun osoz.

Alkarturik gengoan bostak, naigabe aundiz bata besteari begira; Luisa be antxe aurkitzen zan eta, Zelina ta niri begira, esan eban: "Gaixoak, orain ez daukazue amarik!" Orduan Zelina Mariaren beso artean jausi zan, esanik: "Zu izango zara nire amatxo". Nik aren antzera jokatu oi neban, baiña zugana, Ama, itzuli nintzan, eta geroak oraindik bere miesa urratu ba leu lez, zeure besoetan etzun nintzan, negar-zotinka: "Paulina izango da nire ama!"

*Karmele Aurtenetxe - Irakaslea (Zornotza)*